ALDE ZAHARREKO JAI BATZORDEA
COMISIÓN DE FIESTAS DEL CASCO VIEJO

# 2024ko Aldapako San Fermin jaien kartel lehiaketaren oinarriak

**Bi kategoria** izango dira lehiaketan eta biek oinarri berdinak bete beharko dituzte:

- 15 urtetik aurrera (15 barne).
- 15 urtetik behera.

**Oinarriak**:

- Jatorrizko lanek Din A-3 tamaina izan beharko dute, bertikalean.
- Kartela hainbat koloretan egina izan ahalko da.
- Parte hartzaile bakoitzak nahi adina lan aurkeztu ditzake.
- Lanak aurkezteko modua:
  - 15 urtetik gorakoak: jatorrizko lanak formatu fisikoan aurkeztu beharko dira, eta egileak kopia bat izan beharko du formatu digitalean, irabazle suertatuz gero Jai Batzordeari emateko.
  - 15 urtetik azpikoak: jatorrizko lanak formatu fisikoan aurkeztu beharko dira.
- Abuztuaren 20 eta 21ean Auzoenean aurkeztu beharko dira (Aldapa k. 3-5) 18:00h-20:00h bitarteko ordutegian.
- Kartel irabazleen jabetza Jai Batzordearenak izango dira, eta hauek erabiltzeko eskubide osoa izango du.
- Kartelak **testu hau** eduki beharko du:

**ALDAPAKO SAN FERMIN - SAN FERMIN DE ALDAPA**
**Irailak 20, 21, 22 septiembre 2024**
**Antolatzailea: Alde Zaharreko Jai Batzordea.**
**Organiza: Comisión de Fiestas del Casco Viejo**

- Kartelak plika sistema bidez aurkeztu beharko dira. Originala, izendatutako sobre batean sartu beharko da eta izen bereko beste sobre batean, egilearen datuak (izen-abizenak, helbidea eta telefonoa).

**Lehiaketaren sariak:**

- **1. Saria:** 400€ eta 50€tako bonoa Santo Domingoko merkatuan erabiltzeko.
- **Txikien saria:** 100€tako bonoa egitarauan iragarkia duten edozein auzoko dendan erabiltzeko.

**Kartel irabazlearen hautaketa:**

- Jai Batzordeak aurre-hautaketa bat egin ahal izango du lehiaketara aurkeztutako lanen artean. Aurre-hautatutakoen artean, sistema misto baten bitartez aukeratuko da kartel irabazlea: herri bozkaketa (%40), aditu talde baten balorazioa (%40) eta Jai Batzordearena (%20).
- Jai Batzordea behin hautaketa eginda jarriko da harremanetan irabazleekin.